

Ardanza: «Europa eta estatuekiko jarrerak exigentea behar du izan»

Europa Hego Atlantikoko IV ihardunaldiei amaiera eman zien EAeko lehendakariak

Nazionalitate eta erregioek Eurapako eraikuntzan izan behar duten jokabidea izan zuen mintzagai Jose Antonio Ardanza lehendakariak Porton atzo amaitu ziren IV ihardunaldietan. Bere ustez erregio eta nazionalitateek jarrera «exigente eta irekia» izan behar dute Europa eta estatuetako erakundeen aurrean.

PORTO

Ardanzak Portugaleko Porton burutu diren Europa Hego Atlantikoko IV ihardunaldien amaiera ekitaldian egin zituen adierazpenok, Eurapako eraikuntzaren inguruan egindako hitzaldian hain zuzen. «Exigentea azpiegituri dagozkien erabakietan parte zuzena izateko» azpimarratu zuen lehendakariak.

Exigentea ezezik «irekia» ere izan behar zuela esan zuen; «elkarriketari irekia» zehaztu zuen. Europaren barne nazionalitate eta erregioen ekintzak «gure nortasuna» indartzeko bultzatu behar dira Ardanzen ustez, «programa bateratuak bideratuz». Porton bildutako hamabi erregio eta nazionalitateen artean -EAE, Akitania eta EAE barne- agiri bat sinatu zuten elkarlana indartu eta bultzatzeko eskatuz. Halaber Eurapako Hego Atlantikoko agente ekonomikoen artean elkarlana sortzea proposatu zuten, «Europa Zentroaren kompetentziari baldintza egokiagotan aurre egiteko».

Ardatz Atlantikoko programa estrategikoaren beharra azpimarratu zuen, non Eurapako kohesioari buruz nazionalitate eta erregioen jarre-



Jose Antonio Ardanza atzo goizean Porton egin zen erregio arteko bileran.

✓ Alliren esanetan, hamabi erregio eta nazionalitateok «presio talde bat» osatzen dute.

ra azalduko den. «Europako eraikuntzan eman ditugun urratsak zeharo aldatu egin dute Estatuetatik sortu den inkomunikazioa» esan zuen, eta nazionalitate eta erregioek Europa eraikitze orduan «eragileak» izan direla esan ere. «Ez da kasualitatea inizatiba izan dutenak gu izatea, eta Europan izan diren aldaketak erakusten dute hori» azpimarratu zuen.

ALLI: PRESIO TALDEA Lehendakariaren ustez pasa den urtea «garrantzitsua» izan da. «Gure helburuekiko hurbil dauden elementuak

eztabaidaren gune bilakatzen ari dira» esan zuen, horrek orain arte egindako lana «ona» izan dela frogatzen bait du bere aburuz.

Urte hau aldiz, are garrantzitsua izango da Europaren etorkizunarako. Ardanzen ustetan beste epe berri bati eman zaio hasiera urte berriarekin, «erabaiorra Komunitatearen etorkizunarako». «Komunitatearen kompetentzia berriak, Fondo Estrukturalak, Ikerketa eta Garpenerako programak eta ingurugirokoak eztabaidaren gune garrantzitsua bilakatuko dira» iragarri zuen

EAeko lehendakariak. Juan Cruz Alli Nafarroako presidentek —lehendabizitzoz ihardunaldietako partaidea— hamabi erregio eta nazionalitateek presio talde bat osatzen dutela onartu zuen. Talde honen helburua zera litzateke bere esanetan: Erregio eta nazionalitate hauek Eurapako besteekiko duten atzerapena murriztea.

Ardanza lehendakariak, Portugalek Europar Komunitatearen duen lehendakari goraipatu zuen ihardunaldien amaieran, Cavaco Silva Portugaleko presidenteari elkarriketatu aurretik. «Portugalek gure jokabidea bultzatuko duela ziur nago» esan zuen. Halaber EKren handitzearen gaineko gogoeta estrategikoa «zorrotasunez» aztertu behar dela esan zuen.

Poliziak bi gazte atxilotu zituen herenegun Tafallan

IRUÑEA

Alfredo Berrondo Labiano eta Gorka Labat Ibarrola, biak Tafallakoak, herenegun atxilotu zituen Poliziak ETari ustezko laguntza eskaintzeagatik. Orain dela hilabete batzuk ETaren 'Saioa' komandoko kide bati laguntza eman ziotela Frantziako muga pasatzeko leporatu diete.

Nafarroako Gobernuak ez ditu azaldu atxilotuen izenak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak jakitera eman dituztelarik. Alfredo Berrondo 42 urte ditu eta 'Azoka' tabernan lan egiten du. Gorka Labat, berriz, 'Egin' egunkariaren berriematea zen Tafalla herrian eta Iruñean atxilotu zuten.

Erregistro polizial ugari egin zituzten atxiloten gauean Ta-

fallan, gaueko 9,30etatik goizaldeko ordubata arte, Gestorak esan dutenez, eta, hasiera batean, Gorka Labaten etxera joan ziren poliziak, baina ez zuten gaztea aurkitu. Hamar polizia izan ziren operazio egin zutenak. Auzitegi Nagusiaren aginte bat zuten poliziek, Baltasar Garzon epailearena.

Erregistroak burutu ondoren ez dute aurkitu gauza susmagaririk atxilotuen etxeetan, bi agenda ezik, Gestorak aditzera eman dutenez.

Bi atxilotuak inkomunikaturik daude Iruñeko polizi egoitzan, zer agintzen duten zain. Senideei ez dietela eman inolako informazioirik aipatu du Gestorak. Dirudenez, Madrilera eramango dituzte berehala.

Iribarren zauritu zutenean ez zegoela istilurik deklaratu dute hiru lekukok

IRUÑEA

Mikel Iribarren larri zauritu zutenean inguruetan ez zela inolako istilurik deklaratu zuten atzo Iruñeko Epaitegian gertaeren lekutik gertu zueden hiru gaztek.

Joan abenduaren 14ean Iruñean izandako gertaeren erantzukizuna argitzeko epaileak zabaldu dituen diligenzien barruan sartzen dira atzo hiru lekukok egindako adierazpenak. Manifestari eta poliziaren arteko enfrontamenduen ondorioz hiru gazte larri zauritu zituzten, horietako bat Mikel Iribarren.

Atzo deklaratu zuten hiru gazteetatik bik ziurtatu zuten, Mikel Iribarren gau guztian ibili zen beraiekin poteoan, «istiluetan parte hartu gabe», eta goizaldeko ordubiak aldera San Lorenzo-kalera joan ziren taxi bat eskatzeko asmoz. Hala eman

zuen jakitera deklarazioaren ostean Iribarren sendiaren abokatuak, kasu honetako herri akusazioa daramanak, hain zuzen. Mikel Iribarren bere lagunengandik une batean banatu zen polizia bat ikusi eta zer gertatzen zen jakininez. Orduan, polizia talde bat beraingoa jo zuen gomazko pilotak eta ke poteak jaurtiz, eta korrika hasi ondoren Mikel Iribarren begibistatik galdu zuten, abokatuak aditzera eman zuenez.

Geroxeago, Tres Reyes hotel inguruetan ke handia ikusi zuten eta bi anbulantzia. Laguna topatzen ez zutela eta, Nafarroako Ospitalera deitu zuten, eta bertan esan zieten zauriturik ingresatu zutela.

POLIZIAK ZAURITUAREN INGURUAN Hirugarren lekuko batek ere deklaratu zuen atzo Iruñeko Epaitegian. Horrek esan zuenez,

Unai Parotenzat fiskalak 188 urte gehiago eskatu du

MADRIL

Unai Parotenzat fiskalak 188 urteko gartzelaldia eskatu zuen asteartean izan ziren epaiketetan. Lehen epaiketean, Unai Parotek uko egin zion epaimahaiak egiten zizkion galdera guztiei erantzuteari eta «faxista» eta «Ordenu Publikoko Tribunalak» deituz. Fiskalak isilik egon behar zuela argudiatu zuen, baina Parotek «zer nahi duzue, arazorik egotea?» ihardetsi zion eta epaigelatik eraman zuten.

Bigarren epaiketean, Unai Parotek berriro eskatu zuen gelatik ateratzea epaimahai ez zuelako onartzen. Eskaera onartu egin zioten, baina handik gutxira berriro bueltatu zuten gelara lekuko batek ezagutu zezan. Bi kasuetan, Arantza Zulueta, Unai Paroten abokatuak absoluzioa eskatu eta defentsa juridikoa egiteari uko egin zion, defendatuaren nahia errespetatuz.

Lehen epaiketean, fiskalak Joaquin Valenzuela teniente jeneralaren auto gainean lehergailu bat jartzearen akusazioari eutsi zion eta 154 urteko gartzelaldia eskatu zuen. Atentatu hartan, Valenzuela teniente jenerala zauritua izan zen, baina berarekin zihoazen Manuel Rodriguez Taboada gidaria, Antonio Noguera Garcia erret-gardia eta Guillermo Tebar Seco teniente koronela hil ziren. Epaiketean proposatutako zortzi lekukoetatik bi bakarrik agertu ziren.

Bigarren epaiketean, Clement Perret ustezko GAL-kidea hiltzeagatik izan zen. Epaiketean hildakoaren alarguna izan zen. Honek ezin izan zuen ezagutu aurrean zen Unai Parot, senarraren hiltzailea zen edo ez.

goizaldeko ordubiak aldera polizia talde bat bi gazteren atzetik korrika ikusi zituen, «pilotak eta ke poteak jaurtiz». Beste polizia talde bat ere ikusi zuen «ke handia irteten zen ingurune batean», epaileari esan zionez.

Momentu horretan, poliziek atxilotu eta hormaren kontra jarri zuten eta ezin zuten ingurune horretara begiratu. Lekuko honek deklaratu zuenez, zauritu bat zegoela entzun ahal izan zuen, nor zen ez bazekien ere.

Herri akusazioaren ustez, deklarazio hauek aurretik beste «zuzeneko lekuko» batek esanak baieztatzen ditu. Poliziak eragin zizkiola zauriak Mikel Iribarreni esan zuen honek, eta «oso distantzia motzetik jaurtitako ke pote baten ondorio izan zirela» azaldu zuen abokatuak.

Zenbait diligentsia falta da oraindik burutzeko kasu honetan.